

3. Praktika: BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeak, (BGAE euskerazko siglen bidez adierazita, eta EPSV gaztelaniakoekin), aurreikuspenerako elementu garrantzitsu bat dira. BGAEak, Euskal Autonomia Erkidegoak duen eskumen eksklusibo bat dira, eta beraz, lurralde honetan bakarrik aurkitzen dira erakunde hauek.

Izenak adierazten duen moduan, borondatezko modalitate aseguratzaile bat dira, eta derrigorrezko Gizarte Segurantzaren osagarriak diren prestazioak jasotzeko aukera emango die onuradunei.

EGIN BEHARREKOA:

Gai honen inguruan informazioa bilatzea eskatzen da, eta hurrengo galderei erantzuna ematen saiatzea:

- Zertarako balio dute BGAEk? Zein funtzio betetzen dute? Zer prestazio mota eskaintzen dute? Eta zelan funtzionatzen dute eta zein baldintza bete behar dituzte?
- Desberdintasunik al dago Pentsio Planekin alderatzen baditugu?

PRAKTIKAKO AUTOEBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK:

Praktika honetan Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeen inguruan informazioa bilatzea eskatzen da, beraien funtzio nagusiak, ematen dituzten prestazioak eta bete beharreko baldintzak aztertuz. Praktika honen inguruko erantzunak ikasmaterialeko 11. gaiko 5. atalean zehazten dira.